

Andoni Martin, errekortadorea

“Ez ditut zezenak ikusten plazara salto egin aurretik, nerbioso jartzen naizelako”

Gorka Bereziartua

“Harrapatu behar diat deabru hori. Zer uste dik, salto eta salto, keinua egin, besoak jaso... Adarretik probatu beharko dik lasaitzeko”. Burua makurtu du, lau hankak zabal hondarrean, lerdea luze ahotik zintzilik. “Paretan josiko haut!”. Animalia zena mugimendu beltza da orain, ehunka kilo haragi basati, odol egarriz trostan. Parean daukan mutilak besoak jaitsi gabe irribarre txikia egin du. 20 metro daude bien artean, 15... 10... 5... 4... 3... 2... 1. Eta adarrek haizea zauritu dute. Zezenaren begiek segundo erdian desagertzen ikusi dute Andoni Martin, orain korrika hesira igotzen ikusi duten bezain azkar. “Beste batean, beste batean harrapatuko haut bai!” dio zezenak. Badaki, noski, gezurra dela.



Esan egia, beldurra sentitzen duzu oraindik.

Bai. Zezenak oraindik atera ez direnean, kamioian daudenean, akojonata egoten naiz. Beste bi lagunekin ibiltzen naiz, ni bezala afizionatuak dira, baina horiei ez die hainbeste eragiten. Gero, plaza barruan zaude-nean adrenalina hutsa da. Emozioa, ez dakit nola esplikatu, beldurra ez behintzat. Baina hasieran bai, oraindik harritu egiten naiz. Ez ditut zezenak ikusten sartu aurretik, nerbioso jartzen naizelako.

Badaezpada ezta? Piztia handiegia bada ere...

Berdin zait handiak edo txikiak izatea... Nahiago ez ikustea!

Bakillek ez didate beldurrik ematen; zezen-zezen horietako batek ordea...

Zezen-zezenekin, Iruñean Sanferminetan ateratzen dituzten horiekin-eta, ez gara ibiltzen. Hernanin uste dut 220 edo 320 kilo inguruan dagoela zezenak gehienez pisatu dezakeena. Nafarroan-eta bai, handiagoak ateratzen dituzte. Orduan, herrian suelto uzten dituztenean ateratzen naiz, baina errekorreak egitera ez.

Plazan hesira igota zeunden. Eta bat-batean jaitsi egin zinen; ez alde lasienera, egia esateko. Noiz egin ze-nuen hori aurreneko aldiz?

Lagun bat neukan sokamuturrean ateratzen zena, eta hura ikustean animatu nintzen. Bakilla txikietan ateratzen hasi nintzen, handietan ez nintzen atrebizten. Txikietan ere beldur dezente ematen zidan, baina ikusten nituenean emozionatu egiten nintzen. Eta horrela, behin lagunekin apustuak egiten hasi, ea zeinek lehe-

nago adarrak ukituko... Hamabi urterekin-edo izan zen hori; hamahiru betetzerako bastante ibiltzen zen beste lagun batekin elkartua nintzen, animalia ginetik salto egin behar genuela, eta salto egin behar genuela.

Zenbat urte dituzu orain?

Hemezortzi.

Sei urte daramazkizu orduan!

Serio-serio lau bat, baina bai.



Hernanin sokamuturra asko izango dugu, baina errekor-tearen artea gutxi dominatzen dute.

Ateratzen diren asko mozkortuta daude-eta... Sokamuturrean atera behar badut aurreko gauean goiz joaten naiz etxera eta ez dut edaten. Zezenekin ibiltzeko ohitura dugun hiru lagunok horrela ibiltzen gara. Besteak, igual edanarengatik-edo, festetan gehiago ausartzen dira. Hala ere esango nuke afizioa sortzen ari dela: lehen bi ibiltzen ginen, orain lau... Pixkanaka ari da zerbait sortzen.

Bota hondarra platerean, nahastu izerdi pixka batekin eta azken ukitua emateko jarri adar pare zure atzetik korrika... Errezetak "Susto handia" du izena. Zure menuan sartu al da noizbait?

Ia urtero... Aurten inportante samar bat izan dut. Urte hasieran Tolosan harrapatu ninduen eta horregatik nahiko lasai ibili naiz geroztik. Gutxi atera naiz urte guztian, Goizuetako festak arte. Han askoz hobeto ibili naiz, baina bestela aurten bastante beldurtuta.

Kontatu, kontatu Tolosako hori...

Normalean herrietan ez da zezen plaza izaten, altura diferenteak dituzten hesiak egoten dira. Tolosan ez, han zezen plaza dago eta hesia gorri horietakoa da...

Gorriak pasarazteko!

...ez gaude ohituta hori igotzera. Bi pausotan egin behar da eta, bai nik baita beste denek ere, korrika goazela mantsotu egiten dugu salto egin aurretik. Zezena oso handia zen egia esan, oso azkar nindoan; frenatu nuen, zezenak harrapatu eta buruz

joan nintzen hesiaren kontra. Goiko parte zuri horretan eman nion bizkarrekin. Astebetez nahiko gaizki egon nintzen.

Ospitalean?

Ez, bestela: hanka bendatuta eta ezin ondo ibili. Ospitalera joateko moduko sustorik ez dut izan.

Entrenamenduren bat egiten al duzu?

Beroketak-eta bai, baina bestela ez dut entrenatzen. Festak ez dira oso segidan izaten: Hernani, Astigarraga eta Lasartekoak izan ezik besteak aste batzuen diferentziarekin izaten dira. Hasieran xuabe-xuabe, gutxi ateraz hasten zara; gero gehiago, berotzen joaten zara...



Tolosa, Astigarraga, Hernani, Goizueta... Zezen-turismoak nola funtzionatzen du? Deitu egiten dizute ala zuek joaten zarete zuen kontutik?

Batzuei deitu egiten diete. Horiek elkarte batean daude, Euskal Herriko Errekortadoreak. Gu gure kontutik mugitzen gara.

Autonomoak zarete beraz. Ikasteko ere bai? Ze toreroek ere eskolak di-

tuzte gaur egun...

Ez gara mugitu baina Euskal Herriko Errekortadoreak elkartekoekin harreman handia daukagu eta azaldu izan digute nola funtzionatzen duen kontuak: gaztetan errekor-teekin nabarmentzen bazara ganaduzaleak deitzen dizu. Zezenak ateratzen dizkizute, ze beraiek ere jendea behar dute animalia probatzeko, zeintzuk balio duten eta zeintzuk ez. Errekortadore horiek ganadutegiaren kamisetarekin joaten dira, lehia-ketak antolatzen dizkiete... Horieta-ko lau edo bost Donostiako errekor-tadore txapelketan ateratzen dituzte. Entrenamenduak? Ez gara enteratu. Beti nahi izan dugu eta aurten herri-ren bateko festetako programan ikastaroren bat antolatu dutela uste dut. Lehenengo urtea izan da eta ez dakit nola funtzionatu duen.

Zaletasuna sortzen lagunduko luke agian...

Hemen ez dago hainbesteko afiziorik. Merezi du? Ez dakit. Pixkanaka joan behar da, herriko festetatik hasita.

Andaluzian berriz, seguru sei urteko umeek ere errekortatzen dutela!

Han ere ez! Errioxan bai, Nafarroan ere bai, eta Valentzian. Valentzian izango dira gehienak. Madrilen ere ikusten dira...

Joan zara horietara, nola egiten duten ikusteko?

Nafarroan eta Errioxan izan naiz, baina errekortadoreak ez, zezenak ikusi ditut kanpoan.

Eta zer iruditzen zezenketekin dagoen betiko eztabaida? Zuei ere tokatuko zitzaizuen "animalia gaixoa horrela mareatzen ibiltzea ere!" entzun beharra.

Aurten San Joanetan esan zidaten bai... Zezenketak ez zaizkit gustatzen, baina errekortatzea diferentea da, ez dituzu hiltzen.

Errekortadorea da zezenaren lagunik onena!

Ez da hori ere. Leku batzuetan heldu egiten diote, hortaz asko kexatzen naiz. Lurrera bota ere bai, batzuetan. Baina errekortatzen zezenak ez du hain gaizki pasatzen.